*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

Murgian, bi mila eta hemeretziko abenduaren hamabian, arratsaldeko zazpiak direnean, aurretik legearen arabera deialdia eginda, Ohiko Bilkura egin da Udaletxeko Bilkura Aretoan. Behean zerrendatzen diren zinegotzi jaun-andreak bildu dira, Unai Gutiérrez Urkiza alkate jaunak zuzendu du bilkura eta Susana Zubiaur Zorrilla andreak Udalbatzako idazkari-lanak egin ditu.

En Murgia a doce de diciembre de dos mil diecinueve, siendo las diecinueve horas, previa convocatoria cursada en forma legal, se celebró Sesión Ordinaria en el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial con la asistencia de l@s Señor@s Concejales que debajo se relacionan bajo la Presidencia del Sr. Alcalde D. Unai Gutiérrez Urkiza, actuando de Secretario la de la Corporación, Dª Susana Zubiaur Zorrilla.

**ALKATEA**
UNAI GUTIÉRREZ URKIZA JN. (EH Bildu)
**BERTARATU DIREN ZINEGOTZIAK**
INMA ELORZA BERGARA AND. (EH Bildu)
AGUSTÍN OTSOA ERIBEKO LANDA JN. (EH Bildu)
ITZIAR MENDIA CELAA AND. (EH Bildu)
NEREA IDIGORAS LASAGA AND. (EH Bildu)
ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA AND. (ZUIA BAI)
JUAN CARLOS ALONSO MORAZA JN. (ZUIA BAI)
CONCHI LÓPEZ LÓPEZ AND. (ZUIA BAI)
ANDRÉS LAFUENTE OTXOA JN. (ZUIA BAI)
LUIS MARIA SAUTU APELLÁNIZ JN. (PP)
**BERTARATU EZ DEN ZINEGOTZIA:**
ALAITZ TRESSERRAS ANGULO AND. (EH Bildu)

**ALCALDE**
DON UNAI GUTIÉRREZ URKIZA (EH Bildu)
**CONCEJALES ASISTENTES**
DOÑA INMA ELORZA BERGARA (EH Bildu)
DON AGUSTÍN OTSOA ERIBEKO LANDA (EH Bildu)
DOÑA ITZIAR MENDIA CELAA (EH Bildu)
DOÑA NEREA IDIGORAS LASAGA (EH Bildu)
DOÑA ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA (ZUIA BAI)
DON JUAN CARLOS ALONSO MORAZA (ZUIA BAI)
DOÑA CONCHI LÓPEZ LÓPEZ (ZUIA BAI)
DON ANDRÉS LAFUENTE OTXOA (ZUIA BAI)
DON LUIS MARIA SAUTU APELLÁNIZ (PP)
**CONCEJAL QUE NO ASISTE:**
DOÑA ALAITZ TRESSERRAS ANGULO (EH Bildu)

Arratsaldeko zazpietan bilkura publikoa irekita, Lehendakaritzaren aginduz aurreikusitako gai-zerrenda landu, eta adierazten ditudan ondoko erabakiak hartu dira.

Abierto el acto público a las diecinueve horas, por orden de la Presidencia se trató el Orden del día previsto, adoptándose los acuerdos que paso a reseñar.

**1.- AURREKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA.**

Aurreko bilkuraren akta ikusirik, onartzea erabaki du Udalbatzak aho batez.

**1.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA SESIÓN ANTERIOR.**

Vista el acta de la sesión anterior la Corporación por unanimidad acuerda aprobarla.

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

**2.- ALKATETZAREN DEKRETUAK.**

Alkatetzak azaroaren 18ko 442. zk.ko dekretutik abenduaren 5eko 464.era arte eman dituen xedapenen berri eman da.

**3.- POSTA OFIZIALA**

**3.1.- Arabako Foru Aldundia:**

- Ogasun, Finantza eta aurrekontu Sailak: 2019ko urriko nahitaezko diru bilketaren ordainketa aginduaren berri eman du; Udalak OHZ menpeko hiri lurzoruaren mugaketari buruzko behin-behineko Foru Aginduaren aurka aurkeztutako alegazioari erantzun dio Katastro Zerbitzuak; OHZ menpeko hiri lurzoruaren mugaketaren behin betiko onespena jakinarazi eta planoak gehitu ditu; eta 2021ean katastro balioen ponentzia berria indarrean sartuko dela jakinarazi du.
- Ingurumen eta Hirigintza Sailak, Ziorragan dagoen telefonia mugikorreko deien banagunea onura publikokoa dela dioen Foru Aginduaren berri eman du.
- Nekazaritza Sailak honako hauek jakinarazi ditu: behi aziendaren osasun programaren 2018ko diru-laguntzaren zati bat itzuli dela eta Zuiako XXVII. Abere Azoka antolatu eta ospatzeko diru-laguntza eman dela: 1.485,20€.
- Berdintasun eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak jakinarazi du Arabako Koadriletan abian dela LGTBI pertsonen errealitateei buruzko diagnostikoa.
- Kultura eta Kirol Sailak 2019ko musika prestakuntzako programen diru-laguntza justifikatzeko azken eguna jakinarazi du.

**3.2.- Eusko Jaurlaritza:**

- Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak Auzolandegiak programaren eta haur

**2.- DECRETOS DE ALCALDÍA.**

Se da cuenta de las resoluciones dictadas por la Alcaldía desde el decreto nº 442 del 18 de noviembre al 464 del 5 de diciembre, dándose la Corporación por enterada.

**3.- CORRESPONDENCIA OFICIAL.**

**3.1.- Diputación Foral de Alava:**

- Hacienda, Finanzas y Presupuestos comunica la orden de pago de la recaudación ejecutiva de octubre/2019, el Servicio de Catastro contesta la alegación presentada por el Ayuntamiento a la Orden foral provisional de la delimitación de suelo urbano sujeto a IBI comunica la aprobación definitiva de la delimitación de suelo urbano de Zuia sujeto a IBI y adjunta planos e informa de la entrada en vigor en 2021 de la nueva ponencia de valores catastrales.
- Medio Ambiente y urbanismo comunica la Orden Foral por la que se declara de utilidad pública la estación base de telefonía móvil en Ziorraga.
- Agricultura comunica el reintegro de parte de la subvención del año 2018 del programa sanitario bovino y la concesión de subvención para la organización y celebración de XXVII Feria del ganado de Zuia: 1.485,20€.
- Dirección de Igualdad y Derechos Humanos comunica el inicio del diagnóstico sobre las realidades de las personas LGTBI* en las Cuadrillas de Alava.
- Cultura y Deportes comunica la fecha límite para justificar la subvención de los programas de formación musical 2019.

**3.2.- Gobierno Vasco:**

- Empleo y Políticas Sociales informa sobre el programa Auzolandegiak-Campos

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus ● Web: www.zuia.eus*

eta nerabeei laguntzeko zerbitzuaren berri eman, eta azaroko DSBE nomina bidali du.

- Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak, kodez zifratutako fitxategia bidali du Etxebideko Erregistroan izena eman duten Zuiako alokairuko etxebizitza eskatzaileen datuetara sartu ahal izateko, eta Udalplan 2019 argitalpena bidali du.
- Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, Guillerna/Gilierna Administrazio Batzarraren izen ofiziala Gilierna izango dela behin betiko onartu izana iragartzen duen iragarkiaren berri eman, eta liburutegiko funtsak berritzeko 1.232 euroko eman direla jakinarazi du.
- Segurtasun Sailak San Andres txirrindularitza probari buruzko informazioa bidali du.

**3.3.- EUDEL/Euskadiko Udalen Elkartea:**

- Gurasotasun baimenak parekatzeko gomendioari buruz 2019.11.14ko batzorde betearazleak hartutako erabakia bidali du.

**3.4.- Epaitegiak:**

- Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 2. Epaitegiak, Gobernuaren ordezkariordeak udaletxeko balkoian Gure esku dago-ren kartela jartzeagatik Udalaren aurka aurkeztutako errekurtsoa onartzen duen epaiaren lekukotza bidali du.

**4.- ZERGA ORDENANTZEN AURKAKO ALEGAZIOEN EBAZPENA**

2020rako Zerga eta prezio publikoen ordenantzen aldaketari aurkeztutako alegazioen berri eman da:

de voluntariado juvenil, informan sobre el servicio de ayuda a la infancia y a la adolescencia, remite nómina RGI de noviembre

- Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda remite fichero encriptado con código para acceder a los datos de demandantes de vivienda en alquiler en Zuia inscritos en el Registro de Etxebide y remite publicación de Udalplan 2019.
- Cultura y Política Lingüística informa del anuncio por el que se da publicidad a la aprobación definitiva del nombre oficial de la Junta Administrativa de Guillerna/Gilierna que pasa a denominarse Gillerna, comunica concesión de subvención para la renovación de fondos de la biblioteca por importe de 1.232€.
- Seguridad remite información sobre prueba ciclista S. Andrés.

**3.3. - EUDEL-Asociación de municipios vasco:**

- Remite acuerdo de la comisión ejecutiva del 14.11.2019 sobre recomendación para la equiparación de los permisos de parentalidad.

**3.4.- Juzgados y Tribunales**:

- Juzgado de lo Contencioso-Administrativo nº 2 de Vitoria-Gasteiz remite testimonio de sentencia estimatoria del recurso interpuesto por el subdelegado del gobierno frente al Ayuntamiento por la colocación del cartel Gure esku dago en el balcón del consistorio.

**4.- RESOLUCIÓN ALEGACIONES A LAS ORDENANZAS FISCALES**

Se da cuenta de las alegaciones presentas a la modificación de las Ordenanzas fiscales y de precios públicos para 2020:

Alkateak, Informazio Batzordean azaldutakoa errepikatuz, behin-behinekoz onartutako aldaketei buruzko arazoak ebaztea proposatu du, hau da, alegatutako gai berriak eztabaidatu gabe.

**Ondasun Higiezinen Ordenantzaren aldaketa:**

- Hirukide-Euskadiko kide ugariko familien elkarteen federazioak, aurreikusitako errentak gainditzen dituzten kategoria berezi eta arrunteko famili ugarientzako %25 eta %10eko hobariak, hurrenez hurren, kendu izanaren aurrean ondorengoa ESKATU DU: *zeuden hobariak berreskura daitezela, errenta mugetarako familia errenta estandarizatuaren sistema ezarriz. Izan ere, sistema horrek modu bidezkoago eta zuzenagoan haztatzen ditu seme-alaba kopurua eta familien egoera... eta subsidiarioki, alegazio hori aintzat hartu ezean, behin-behineko onespenaren egunera arte zeuden hobariak ezar daitezela, herentzia edo dena delakoagatik bigarren etxebizitzaren %50 edo hortik beherako zatia izatearen baldintza kenduta.*

- L. Z. A. jn.: 17. artikuluan, egoitza erabilerako ondasun higiezinetarako OHZren kuota likidoaren ehuneko berrogeita hamarrera arte aurreikusitako errekargua, horiek subjektu pasiboaren edo hirugarren batzuen ohiko etxebizitza ez direnean errentamenduan edukitzeagatik edo erabilera laga izanagatik, hau da, Eusko Jaurlaritzak xedatutakoaren arabera hutsik dagoen etxebizitzatzat jotakoei ezarritakoa dela-eta uste du hutsik dauden etxebizitzei buruzko jaurlaritzaren xedapena ez dela betetzen eta ESKATZEN DU *berrazter dadila aipatu errekargua "bigarren etxebizitza izate hutsagatik".*

- A. G.V. jn.:

El Alcalde reiterando lo expuesto en la comisión informativa propone resolver las cuestiones referentes a las modificaciones aprobadas provisionalmente, sin entrar a debatir nuevas cuestiones alegadas.

**Modificación de la Ordenanza de Bienes Inmuebles:**

- Hirukide-Federación de asociaciones de familias numerosas de Euskadi ante la eliminación de las bonificaciones del 25 y 10% para familias numerosas de categoría especial y general respectivamente, que superen las rentas previstas SOLICITA *se recuperen las bonificaciones que se tenían, estableciendo para los topes de renta, el sistema de renta familiar estandarizada, Un sistema que pondera de una manera más justa y equitativa el número de hijos e hijas y las circunstancias familiares .... y subsidiariamente en el caso de no tener en cuenta dicha alegación se apliquen las bonificaciones que se tenían hasta la fecha antes de la aprobación inicial, quitando el requisito de tener una segunda vivienda, por herencia u otra circunstancia, en propiedad igual o menor del 50%.*

- D. L. Z. A.: respecto al recargo previsto en el artículo 17 de hasta el cincuenta por ciento de la cuota líquida del IBI para los bienes inmuebles de uso residencial que no constituyen la residencia habitual del sujeto pasivo o terceras personas por arrendamiento o cesión de uso, lo que se ha llamado otras veces vivienda vacía según lo dispuesto por Gobierno Vasco, considera que no se atiene a la disposición del gobierno Vasco sobre las viviendas deshabitadas y SOLICITA *reconsiderase el citado recargo "simplemente por ser segunda vivienda".*

- D. A. G.V.:

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus ● Web: www.zuia.eus*

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus ● Web: www.zuia.eus*

17. artikuluan, egoitza erabilerako ondasun higiezinetarako OHZren kuota likidoaren ehuneko berrogeita hamarrera arte aurreikusitako errekargua, horiek subjektu pasiboaren edo hirugarren batzuen ohiko etxebizitza ez direnean errentamenduan edukitzeagatik edo erabilera laga izanagatik, hau da, Eusko Jaurlaritzak xedatutakoaren arabera hutsik dagoen etxebizitzatzat jotakoei ezarritakoa dela-eta ESKATZEN DU *17. artikuluak bat egin dezala Etxebizitzari buruzko 3/2015 Legeak dioenarekin.*

Ordenantzaren hautazko Hobariak direla-eta, ondorengoa ESKATZEN DU: *Hobaria eta salbuespena eraikinen energia efizientziaren arabera, hobaria eguzki energia aprobetxatzeko sistemak jartzeagatik eta hobaria ondare arkitektonikoaren kontserbazio eta berriztatzearen gainean.*

Alkateak, Informazio Batzordean azaldutakoa errepikatuz, Udalbatzak aldi batez onartutako aldaketen aurkako erreklamazioei erantzutea proposatu du, aldaketa horien ingurukoak ez diren alegazioetan sartu gabe, eta hain zuzen ere, aurreikusitako errenta gainditzen duten familia ugariei %25 eta %10eko hobariak kentzeari eta 17. artikuluko errekarguari dagozkienei, erantzuna honako hau izanik:

- Hirukide-Euskadiko kide ugariko familien elkarteen federazioak ondasun higiezinen zerga arautzen duen Udal zerga ordenantzaren aldaketaren (honen bitartez aurreikusitako errentak gainditzen dituzten kategoria berezi eta arrunteko famili ugarientzako %25 eta %10eko hobariak, hurrenez hurren, kendu da) aurka aurkeztutako alegazioa ez onartzea, idazkian alegatutako errenta estandarizatua ezarri gabe, hurrengo aldaketa batzuetan kontzeptua, dagokien zerga guztiei ezartzeko, aztertu ahal izango dela baztertu gabe.

Respecto al recargo previsto en el artículo 17 de hasta el cincuenta por ciento de la cuota líquida del IBI para los bienes inmuebles de uso residencial que no constituyen la residencia habitual del sujeto pasivo o terceras personas por arrendamiento o cesión de uso, lo que se ha llamado otras veces vivienda vacía según lo dispuesto por Gobierno Vasco, SOLICITA *que el artículo 17 de la Ordenanza cumpla la Ley 3/2015, de vivienda.*

Respecto a las Bonificaciones potestativas de la Ordenanza SOLICITA que se incluyan: *Bonificación y exenciones según la eficiencia energética de los edificios, bonificación por la instalación de sistemas de aprovechamiento de la energía solar y bonificación sobre conservación y rehabilitación del patrimonio arquitectónico.*

El Alcalde, reiterando lo expuesto en la Comisión informativa propone contestar las reclamaciones a las modificaciones aprobadas provisionalmente por la Corporación, omitiendo entrar en las alegaciones ajenas a dichas modificaciones, y concretamente lo referente a la eliminación de las bonificaciones a las familias numerosas del 25 y 10% que superen la renta prevista y al recargo del artículo 17, de la siguiente forma:

- Desestimar la alegación presentada por Hirukide-Federación de Asociaciones de Familias numerosas de Euskadi a la modificación de la Ordenanza fiscal municipal reguladora sobre el impuesto de bienes inmuebles, por la que se eliminan las bonificaciones del 25 y 10% para familias numerosas de categoría especial y general respectivamente que superen la renta prevista, sin aplicar la renta estandarizada que alega en su escrito, sin perjuicio de que para próximas modificaciones se pueda debatir dicho concepto para su aplicación a todos los impuestos a los que corresponda.

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

- L Mª. Z.A. eta A.G.V. jaunek 17. artikuluaren inguruan aurkeztutako alegazioak onartzea, aipatzen den hutsik dagoen etxebizitza bat datorrelako Eusko Jaurlaritzak 56. artikuluan jenderik gabeko etxebizitzarekin, eta horren testua idazketa egoki batez zuzentzea akatsak saihesteko, ondoren adierazten den bezala:

"17. artikulua.

*Zergaren kuota likidoaren ehuneko berrogeita hamarrera arteko errekargua ezartzen zaie subjektu pasiboaren edo hirugarren batzuen bizilekua ez diren egoitza erabilerako ondasun higiezinei, alokatuta edo erabiltzeko lagata egoteagatik, horrelako higiezintzat hartuta Eusko Jaurlaritzaren etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legeak 56. artikuluan "jenderik gabeko etxebizitza" izendatzen dituenak.*

Udalbatzak honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA: Gehiengoz, alkatearen kalitateko botoarekin, 5na botoko (aldekoak, EH-BILDUko 5 zinegotzienak eta aurkakoak, ZUIA BAIko 4 zinegotzi eta PPko 1ena) berdinketa errepikatu ondoren, HIRUKIDEk aurkeztutako alegazioa **ez onartzea**. Alegazio hori Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren ordenantzaren aldaketaren behin-behineko onespenari dagokio eta bertan errentak gainditzen dituzten kategoria berezi eta arrunteko famili ugarientzako %25 eta %10eko hobariak, hurrenez hurren, kentzea eta errenta estandarizatua ez ezartzea onartu zen.

BIGARRENA: LMª Z.A. eta A.G.V jaunek aurkeztutako alegazioak **onartzea**. Alegazio horietan Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren ordenantzaren aldaketan behin-behineko onespenaren aurka egiten zen, egoitza erabilerako ondasun

- Estimar las alegaciones presentadas por L Mª. Z.A. y A.G.V. sobre el nuevo artículo 17 porque la vivienda vacía a la que se refiere el mismo es lo que la Ley de Vivienda de Gobierno Vasco denomina vivienda deshabitada en su artículo 56 y corregir el texto del mismo con una redacción más adecuada para evitar errores conforme seguidamente se recoge:

"Artículo 17.

*Se establece un recargo de hasta el 50 por ciento de la cuota líquida del impuesto a los bienes inmuebles de uso residencial que no constituyan la residencia del sujeto pasivo o de terceras personas por arrendamiento o cesión de su uso, entendiendo como tales inmuebles los que la Ley 3/2015 de 18 de junio de Vivienda de Gobierno Vasco denomina "vivienda deshabitada" en su artículo 56.*

La Corporación, ACUERDA:

PRIMERO: Por mayoría, con el voto de calidad del Alcalde una vez repetido el empate de 5 votos a favor (los 5 Concejales de EHBILDU) y 5 en contra (4 Concejales ZUIA BAI y 1 del PP), **desestimar** la alegación presentada por HIRUKIDE a la aprobación provisional de la modificación de la ordenanza del Impuesto de Bienes Inmuebles referente a la eliminación de las bonificaciones del 25 y 10% para familias numerosas de categoría especial y general que superen las rentas previstas y lo referente a la renta estandarizada.

SEGUNDO: Por unanimidad **estimar** las alegaciones presentadas por D. LMª Z.A. y D.A.G.V. a la aprobación provisional de la modificación de la ordenanza del Impuesto de Bienes Inmuebles referentes al recargo de hasta el cincuenta por ciento de la cuota

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

higiezinetarako OHZren kuota likidoaren ehuneko berrogeita hamarrera arte ezarritako errekargua zela-eta, zehaztuta behin-behinekoz onartutako testuko hutsik dagoen etxebizitza kontzeptua bat datorrela Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Legeak 56. artikuluan jasotzen duen jenderik gabeko etxebizitzarekin. Bestalde, aipatu testua zuzentzea akatsak saihesteko, ondoren adierazten den bezala.

líquida del IBI para los bienes inmuebles de uso residencial, concretando que el concepto de vivienda vacía del texto provisionalmente aprobado es lo que la Ley de Vivienda de Gobierno Vasco denomina vivienda deshabitada en su artículo 56 y corregir el citado texto para evitar errores conforme seguidamente se recoge.

Gehiengoz, alkatearen kalitateko botoarekin, 5na botoko (aldekoak, EH-BILDUko 5 zinegotzienak eta aurkakoak, ZUIA BAIko 4 zinegotzi eta PPko 1ena) berdinketa errepikatu ondoren.

Por mayoría, con el voto de calidad del Alcalde una vez repetido el empate de 5 votos a favor (los 5 Concejales de EHBILDU) y 5 en contra (4 Concejales ZUIA BAI y 1 del PP)

HIRUGARRENA: Ondasun Higiezinen gaineko Zerga arautzen duen Ordenantzaren aldaketa behin betiko onartzea, 17. artikulua berriro idatzita:

TERCERO: Aprobar definitivamente la modificación de la Ordenanza reguladora del Impuesto sobre Bienes inmuebles con la nueva redacción del Artículo 17:

17. artikulua.
*Zergaren kuota likidoaren ehuneko berrogeita hamarrera arteko errekargua ezartzen zaie subjektu pasiboaren edo hirugarren batzuen bizilekua ez diren egoitza erabilerako ondasun higiezinei, alokatuta edo erabiltzeko lagata egoteagatik, horrelako higiezintzat hartuta Eusko Jaurlaritzaren etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legeak 56. artikuluan "jenderik gabeko etxebizitza" izendatzen dituenak.*

Artículo 17.
*Se establece un recargo de hasta el 50 por ciento de la cuota líquida del impuesto a los bienes inmuebles de uso residencial que no constituyan la residencia del sujeto pasivo o de terceras personas por arrendamiento o cesión de su uso, entendiendo como tales inmuebles los que la Ley 3/2015 de 18 de junio de Vivienda de Gobierno Vasco denomina "vivienda deshabitada" en su artículo 56.*

LAUGARRENA: Erabaki hau eta behin betiko onartutako zerga ordenantzaren testu osoa ALHAOn argitaratzea.

CUARTO: Publicar este acuerdo y el texto íntegro de la Ordenanza fiscal definitivamente aprobada en el B.O.T.H.A.

BOSGARRENA: Alegazio-egileei aurkeztutako alegazioen inguruko erabakia jakinaraztea.

QUINTO: Notificar a los alegantes la resolución de las alegaciones presentadas.

**Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren ordenantzaren aldaketa:**

**Modificación de la Ordenanza de impuesto sobre vehículos de tracción mecánica:**

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

- Bost leku edo gehiago dituzten ibilgailuen zergaren tarifan kendutako %25eko *hobaria berreskuratzeko* eskatu du Hirukidek, ibilgailu hori familia ugariko kide batena denean eta errenta mugarik ez duenean, eta *subsidiarioki, eskaera hori aintzat izan ezean, %50era igo dezala hobaria kategoria bereziko familia ugarientzat (5 seme-alaba edo gehiago) eta %25 kategoria orokorrekoentzat (hiru edo lau seme-alaba, edo bi horietako bat ezgaitua denean) familiaren ibilgailuan familia errenta estandarizatuaren sistema aintzat hartuta.*

- Hirukide solicita que *se recupere la bonificación* del 25% de la tarifa del impuesto de los vehículos de cinco o más plazas cuya titularidad recaiga sobre algún miembro de la familia numerosa sin límite alguno de renta que ha sido eliminada, y *subsidiariamente en el caso de no tener en cuenta dicha petición se amplíe la bonificación al 50% para las familias numerosas de categoría especial (cinco o más hijos/as) y un 25% para las de categoría general (tres o cuatro hijos/as, o dos cuando uno de ellos sea discapacitado/a) teniendo en cuenta el sistema de renta familiar estandarizada en un vehículo familiar.*

Alkateak aurkeztutako alegazioa ez onartzea proposatu du.

El Alcalde propone desestimar la alegación presentada.

Udalbatzak, gehiengoz, alkatearen kalitateko botoarekin, 5na botoko (aldekoak, EH-BILDUko 5 zinegotzienak eta aurkakoak, ZUIA BAIko 4 zinegotzi eta PPko 1ena) berdinketa errepikatu ondoren, honako hau ERABAKI DU:

La Corporación por mayoría, con el voto de calidad del Alcalde una vez repetido el empate de 5 votos a favor (los 5 Concejales de EHBILDU) y 5 en contra (4 Concejales ZUIA BAI y 1 del PP) ACUERDA:

LEHENENGOA: Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren ordenantzaren aldaketaren behin-behineko onespenaren aurka Hirukidek aurkeztutako alegazioa ez onartzea, hau da, familia ugariko kide baten bost leku edo gehiagoko ibilgailuetan %25eko hobaria kentzearena eta dagoen hobaria handitzearena, errenta estandarizatuaren sistema aintzat hartuta.

PRIMERO: Desestimar la alegación presentada por Hirukide a la aprobación provisional de la modificación de la ordenanza del Impuesto sobre Vehículos de tracción mecánica referente a la eliminación de la bonificación del 25% en vehículos de 5 o más plazas titularidad de miembro de familia numerosa y la ampliación de la bonificación existente teniendo en cuenta el sistema de renta estandarizada.

BIGARRENA: Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren ordenantzaren aldaketa behin betiko onartzea.

SEGUNDO: Aprobar definitivamente la modificación de la Ordenanza reguladora del Impuesto sobre Vehículos de tracción mecánica.

HIRUGARRENA: Erabaki hau eta behin betiko onartutako zerga ordenantzaren testu osoa ALHAOn argitaratzea.

TERCERO: Publicar este acuerdo y el texto íntegro de la Ordenanza fiscal definitivamente aprobada en el B.O.T.H.A.

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus ● Web: www.zuia.eus*

LAUGARRENA: Alegazio-egileari aurkeztutako alegazioaren inguruko erabakia jakinaraztea.

CUARTO: Notificar a la alegante la resolución de la alegación presentada.

BOSGARRENA: Alegaziorik jaso ez duten gainerako Ordenantzen aldaketak behin betiko onartutzat jotzea, 2019.10.10ean hartutako erabakiaren arabera, eta guztien testu osoa ALHAOn argitaratzea.

QUINTO: Considerar aprobadas definitivamente las modificaciones del resto de Ordenanzas que no han sido objeto de alegación conforme al acuerdo adoptado con fecha 10.10.2019 y publicar el texto completo de todas en el B.O.T.H.A.

SEXTO: Facultar al Sr. Alcalde-Presidente, D. Unai Gutiérrez Urkiza o a quien legalmente le sustituya para que nombre y representación del Ayuntamiento formalice cuantos documentos sean precisos en ejecución de estos acuerdos.

SEXTO: Facultar al Sr. Alcalde-Presidente, D. Unai Gutiérrez Urkiza o a quien legalmente le sustituya para que nombre y representación del Ayuntamiento formalice cuantos documentos sean precisos en ejecución de estos acuerdos.

**5.- 2020KO LAN EGUTEGIA.**

Alkateak, Informazio Batzordean azaldutakoa errepikatuz, udal langileen lan egutegiaren proposamena jakinarazi du: urtean 1.592 ordu, astean 35 ordu (7 ordu egunean), 2020.01.01etik 2020.02.29ra izan ezik, 36,25 ordukoa izango baita (egunean 7,25 ordu), eta 22 opor egun gehi norberaren aukerako 6 egun, indarrean dagoen araudia kontuan hartuta. Udal-bulegoetan jendearen arretarako ordutegia (9:00etatik 14:00etara) eta lan ordutegia mantenduko dira, hau da, astelehenetik ostiralera 7:45etik 15:00etara, 2020.01.01etik 2020.02.29ra, eta urteko gainerako egunetan 8:00etatik 15:00etara.

Udalbatzak onartzea ERABAKI DU aho batez.

**5.- CALENDARIO LABORAL 2020.**

El Alcalde, reiterando lo expuesto en la Comisión informativa, da cuenta de la propuesta del calendario laboral de los trabajadores 1.592,25 horas/anuales, 35 horas/semana (7 horas/día), salvo del 01.01.2020 al 29.02.2020 que será de 36,25 (7,25 horas/día), 22 días de vacaciones y 6 de libre disposición, teniendo en cuenta la normativa vigente. Se mantiene el horario de atención al público en las oficinas municipales de 9:00 a 14:00 horas, y el horario de trabajo será de 7:45 a 15:00 horas de lunes a viernes del 01.01.2020 al 29.02.2020 y el resto del año de 8:00 a 15:00.

La Corporación por unanimidad ACUERDA aprobarlo.

**6.- GURASOTASUN BAIMENAK PAREKATZEA.**

Alkateak, Informazio Batzordean azaldutakoa errepikatuz, gaur egun Udal langileei aplika dakiekeen Udalhitz Hitzarmena hobetzea onartzea proposatu du, hau da, gurasotasun baimenak parekatzea, eta hori guztia, EUDELek

**6.- EQUIPARACION DE LOS PERMISOS DE PARENTALIDAD.**

El Alcalde, reiterando lo expuesto en la comisión informativa propone aprobar una mejora al Convenio de Udalhitz actualmente aplicable al personal del Ayuntamiento, consistente en la equiparación de los permisos de parentalidad, en los términos

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

2019.11.14ko idazkian bidali eta udaletxean 2019.11.21ean jaso zen gomendioan aurreikusitakoaren arabera.

previstos en la recomendación remitida desde EUDEL en su escrito de fecha 14.11.2019, con registro de entrada en el Ayuntamiento el 21.11.2019.

Udalbatzak honako hau ERABAKI DU aho batez:

La Corporación por unanimidad ACUERDA:

LEHENENGOA: Seme-alaben jaiotze, adopziorako harrera edo adopzio baimenen iraupena parekatzea bi gurasoentzat, gaurtik aurrera, EUDELek bidalitako idazkian jasotakoari jarraiki.

PRIMERO: Equiparar la duración de los permisos de nacimiento, guarda con fines de adopción, acogimiento o adopción de hijo o hija para ambos progenitores, desde el día de hoy, en los términos del escrito remitido por EUDEL.

BIGARRENA: Unai Gutiérrez Urkiza alkate-udalburu jaunari, edo legearen arabera bere ordez ari denari, gaitasuna ematea erabaki hau gauzatzeko behar diren agiriak formaliza ditzan udalaren izenean eta ordezkaritzan.

SEGUNDO: Facultar al Sr. Alcalde-Presidente, D. Unai Gutiérrez Urkiza o a quien legalmente le sustituya para que nombre y representación del Ayuntamiento formalice cuantos documentos sean precisos en ejecución de estos acuerdos.

**7.- KREDITU TRANSFERENTZIAREN ESPEDIENTEA.**

**7.- EXPEDIENTE DE TRANSFERENCIA DE CRÉDITO.**

Alkateak, Informazio Batzordean azaldutakoa errepikatuz, kreditu transferentziaren espediente bat onartzea proposatu du, OAMIP ikastetxeko galdara konpontzeko gatuak osatu eta Gorbeiako Parkeko abere azokan parte hartu zuten abeltzainen dietak ordaintzeko. Azken hauek Aldundiak bidalitako jakinarazpenari jarraiki ordainduko dira, jakinarazpen horretan dagokien Udalei eskatu baitie horiek ordaintzeko, erakunde antolatzaileari ekarpena egin beharrean; gainera, zenbatekoa handitu egin da.

El Alcalde, reiterando lo expuesto en la comisión informativa propone aprobar un expediente de transferencia de créditos para suplementar gastos destinados a la reparación de la caldera del centro educativo CPVO y al abono de las dietas a los ganaderos participantes en la feria de ganado del Parque del Gorbeia, a la vista de la comunicación cursada por Diputación, que requiere el pago de las mismas a los respectivos Ayuntamientos en lugar de realizar la aportación a la entidad organizadora, además haberse incrementado el importe.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena ikusirik.

Visto el informe emitido por la Secretaria-Interventora.

Udalbatzak honako hau ERABAKI DU aho batez:

La Corporación por unanimidad, ACUERDA

LEHENENGOA: 4.226,60 euroko 1/2019 zk.ko kreditu transferentziaren

PRIMERO: Aprobar el expediente de transferencia de crédito Nº 1/2019 por

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus ● Web: www.zuia.eus*

espedientea onartzea, ondoren zehazten den legez eta bestelako izapiderik gabe:

importe de 4.226,60 euros conforme al siguiente detalle, sin más trámites:

**Gastuen Egoeratik gutxitu beharreko partidak:**

| Partida | Izena | Hasierako kred. | Zenbateko ezeztagarria |
|---|---|---|---|
| 330.211.001 | Liburutegia konpontzea, mantentzea,… | 5.000 | 1.250,00 |
| 410.420.010 | Gorbeiako parkeko azokarako ekarpena | 2.500 | 2.500,00 |
| 410.226.060 | Zuiako abeltzaintza azoka antolatzea | 26.000 | 476,60 |

**Kreditu gutxitzeak guztira .......................... 4.226,60**

**Gastuen Egoeratik gehitu beharreko partidak:**

| Partida | Izena | Hasierako kred. | Gehikuntza |
|---|---|---|---|
| 320.211.001 | Ikastetxea konpondu, mantendu eta zaintzea. | 25.407,17 | 1.250,00 |
| 410.231.000 | Parkeko abeltzaintza azokako dietak | 0 | 2.976,60 |

**Kreditu gehikuntzak guztira ........................ 4.226,60**

**Partidas del Estado de Gastos a minorar:**

| Partida | Denominación | Créd. inicial | Importe anulable |
|---|---|---|---|
| 330.211.001 | Repar, mantenimiento,…Biblioteca | 5.000 | 1.250,00 |
| 410.420.010 | Aportación Feria del parque Gorbeia | 2.500 | 2.500,00 |
| 410.226.060 | Organización feria ganadera Zuia | 26.000 | 476,60 |

**Total bajas de crédito .................................... 4.226,60**

**Partidas del Estado de Gastos a incrementar:**

| Partida | Denominación | Créd. inicial | Incremento |
|---|---|---|---|
| 320.211.001 | Reparac, mantenim y conservación Edific. Escolares | 25.407,17 | 1.250,00 |
| 410.231.000 | Dietas feria ganadera del parque | 0 | 2.976,60 |

**Total aumentos de crédito ............................. 4.226,60**

BIGARRENA: Arabako Foru Aldundiari espedientearen kopia bat bidaltzea.

SEGUNDO: Remitir una copia del expediente a la Diputación Foral de Alava.

HIRUGARRENA: Unai Gutiérrez Urkiza alkate-udalburu jaunari, edo legearen arabera bere ordez ari denari, gaitasuna ematea erabaki hau gauzatzeko behar diren agiriak formaliza ditzan udalaren izenean eta ordezkaritzan.

TERCERO: Facultar al Sr. Alcalde-Presidente D. Unai Gutiérrez Urkiza o a quien legalmente le sustituya para que en nombre y representación del Ayuntamiento formalice cuantos documentos sean precisos en ejecución de este acuerdo.

**8.- ENKARGUA PARTZUERGOARI, ERKIDEGOKO**

**8.- ENCOMIENDA AL CONSORCIO PARA LA**

Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366
✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus

**KONPOSTATZE EREMUAK MANTENDU ETA KONTROLATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO.**

Alkateak, Informazio Batzordean azaldutakoa errepikatuz, gaia mahai gainean uztea proposatu du, zerbitzuari atxikiko zaizkion Partzuergoko gainerako Udalen antzeko erabakia hartze aldera, erakunde horrek egiten duen eredu baten bitartez.

Gaia mahai gainean uztea erabaki du Udalbatzak aho batez.

**9.- TXOSTENAK.**

Alkateak ondorengo gai hauen berri eman du:

- Murgiako argiteria publikorako bi led luminaria lote erosi eta jartzeko lizitazio prozesua: 11 enpresa aurkeztu dira, bat epez kanpo, onartu ez dena, eta hiru kanpoan geratu dira lizitazioaren oinarrizko prezioa gainditzeagatik. Ustez neurrigabekoak diren hiru eskaintza daude, eta beraz, justifikatzeko eskatu zaie.

Elorza zinegotzi andreari hitza eman eta honako gai hauen berri eman du:

- Ostegunean, 19:00etan, Berdintasun batzordea elkartuko da, eta bertan, Berdintasun teknikari berria aurkeztuko da.
- Hilaren 18an, asteazkena, 2. Eugenio Murgia Bekaren liburua aurkeztuko da.
- Hilaren 21ean, larunbata, 19:00etan, Dani Apodaca hirukotearen eta gitarra-jole batean kontzertua izango da San Migel elizan.

**CONTRATACION DEL SERVICIO DE MANTENIMIENTO Y CONTROL DE ZONAS DE COMPOSTEJE COMUNITARIO.**

El Alcalde, reiterando lo expuesto en la comisión informativa, propone dejar el tema sobre la mesa, con el fin de adoptar un acuerdo similar al resto de Ayuntamientos del Consorcio que se incorporen al servicio, a través de un modelo que se emita desde dicho organismo.

La Corporación por unanimidad acuerda dejar el tema sobre la mesa.

**9.- INFORMES.**

El Alcalde informa los siguientes temas:

- Proceso de licitación para el suministro e instalación de dos lotes de luminarias leds para el alumbrado público de Murgia: se han presentado 11 empresas, una fuera de plazo por lo cual se le ha declarado no admitida, y 3 resultan excluidas al haber superado el precio base de licitación. Hay 3 ofertas económicas presuntamente desproporcionadas, por lo que se les ha requerido la justificación de las mismas.

Concedida la palabra a la Concejala Sra. Elorza informa los siguientes temas:

- El jueves está previsto celebrar comisión de Igualdad a las 19:00 horas, en la que se hará la presentación de la nueva Técnica de Igualdad.
- El miércoles día 18 se hará la presentación del libro de la 2ª Beca Eugenio Murguia.
- El sábado 21 está previsto un concierto en la Iglesia de S. Miguel de Dani Apodaca trio y un guitarrista a las 19:00 horas.

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

**10.- GALDERAK ETA ESKAERAK**

Alonso jaunak azaldu du beharrezkoa dela Aita Pauldarren eremurako eta Sarriako errepideko aparkalekurako sarbideetako zoladura konpontzea, eta alkateak erantzun dio jakinarazi zaiela, jakinarazi, Juan eta Rauli; Aita Pauldarrenena errekerimendua egin behar zaio Yarrituri eta Juan Sarriako aparkalekuarena aztertzen ari da eta langileek egiten ez badute, aurrekontua egin beharko da, orain dirurik ez dagoelako.

Sautu zinegotzi jaunak galdetu du neurririk hartuko den autobus geltokiko markesinan dauden pegatinekin, eta alkateak erantzun dio kentzen saiatuko direla, baina zaila dela.

Jarraian, baltsaren inguruan galdetu eta alkateak jakinarazi dio URAkoek bilera batera deitu zutela zuzendaria, baina azkenean ez zela bertaratu.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, alkate-udalburu jaunak bilkura amaitutzat eman du 20:00etan, eta nik, idazkaria naizen honek, hori guztia egiaztatu dut.

**10.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

El Sr. Alonso pone de manifiesto la necesidad de arreglar el pavimento de la zona de acceso a los P. Paúles y al aparcamiento de la Ctra. de Sarría, contestándole el Alcalde que ya les ha trasladado a Juan y Raúl el tema; lo de los P. Paúles hay que hacer un requerimiento a Yarrritu y lo del aparcamiento de Sarría Juan lo está valorando y si no lo hacen los Operarios hay que presupuestarlo porque ahora no hay dinero.

El Sr. Sautu pregunta si no se va a adoptar alguna medida con las pegatinas existentes en la marquesina del autobús, contestándole el Alcalde que se intentará quitar pero es difícil.

Seguidamente pregunta sobre la balsa, informando el Alcalde que desde URA le habían convocado a una reunión al director, pero finalmente no asistió.

Y no habiendo más asuntos que tratar, por el Sr. Alcalde se dio por finalizada la sesión, siendo las 20:00 horas de todo lo que como Secretario certifico.

Idazkaria / La Secretario,